

Gida didaktikoa

**HAN ETA HEMENGO
IPUINAK I**

BELTXARGAK

BELTXARGAK

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

Gida didaktikoaren azalpena

HELBURUA:

Bideoan ikusitako istoriotik abiatuta, fikziozko testu narratibo bat ekoiztea, txotxongilo-saioa prestatzeko. Kanala: ahozkoa. Eremua: lagunartekoa. Hartzailea: haurrak eta gurasoak. Testua ekoizteko, planifikazioko, testuratzeko eta gainbegiratzeko eragiketak egingo dira.

EDUKIAK:

NARRAZIOARI BURUZKO KONTZEPTUAK:

ESPAZIOA:

Hartzaileak ez du espazio osoaren berri izango, mugatua baizik. Espazioaren berri izango du aztarnetan oinarritutako inferentziak eginez. Beraz, dekoratuak egiterakoan, horretaz jabeaziko ditugu haurrak, eta elementu gutxirekin irudikatu duten leku fantastikoaren berri emateko zer egingo duten.

TRAMA:

Hartzaileak nola izango duen gertakarien berri. Kasu honetan, trama kronologikoa erabiliko dugu.

ELIPSIA ETA LABURPENA:

Traman aurrera egiteko, dena ez da kontatuko, eta, batzuetan, elipsia edo laburpena erabiliko da.

ESZENA:

Gertakari batzuk eszenen bidez azalduko dira; hau da, gertaera osoa antzeztuko da.

PERTSONAIAK:

Pertsonaien jokabidea hartzaileek ulertuko badute, hausnartu beharra dago haien izaeraz eta itxuraz.

Pertsonaia(k) fisikoki deskribatzea

Pertsonaia(k) psikikoki deskribatzea;

Espazioan kokatzea.

Espazioa deskribatzea.

NARRATZAILEA:

Orojakilea (3. pertsona);

PLANIFIKAZIOA:

EGITURA:

Testu-sekuentzia bat izango da, sekuentzia narratiboen artean sekuentzia deskriptiboak dituena. Pertsonaia(k) izendatzea.

Narratzailearen laburpena, traman aurrera egiteko eta gertaera orekatzaileak iragartzeko.

Sekuentziak/Elkarriketak.

POLIFONIA :

Narratzailearen bitartez deskripzioak ematea eta denboraren joanaren berri ematea: zeharkako diskurtsoa.

Pertsonaien bitartez gertakarien berri ematea: diskurtso zuzena.

TESTURATZEA:

KOHERENTZIA:

Inguruaren koherentzia:

Dekoratuak eta musika.

Intonazioa eta keinuak:

Enuntziatiboa; Harridurazkoa; Haserrea; Poza; Tristura; Beldurra; Misterioa; Iseka; Malenkonia; Erabakia; Euforia; Zalantza; Galdera; Ondorioa;

Izenen kohesioa:

Anafora nominala: Errepikapena: Narratzailearen testuan oso garrantzitsua da erreferentearen mantenua lortzea. Horretarako, pertsonaien izenak erabiliko ditu.

Aditzen kohesioa:

Gertakari desorekatzaileak nabarmentzeko, aditzaren aspektu burutua erabiliko da narratzailearen sekuentzietan.

Aditz perifrastikoak: Nor(zer)-nork, indikatiboko orainaldia. Nor-nori-nork subjuntiboan.

ANTOLATZAILEAK:

Begirada, puntuazioaren intonazioa: itxaronaldiak sortzeko, amaiera iragartzeko...

Gairatzeko: Behin batean, Bazen behin...

Gertakari desorekatzaileak iragartzeko: Halako batean, une hartan, orduan, ...-nean.

Amaitzeko: Zorion entzun duenarentzat, zorion kontatu duenarentzat.

DEKLINABIDEA:

Nork, Nori, Norengana (sg. eta pl.)

IDAZKETAREN ETA IRAKURKETAREN ESTRATEGIAK:

LEXIKOA:

Izenondoak: pertsonen izaera deskribatzeko.

Aditzondoak: ekintzen izaera deskribatzeko

Jarduera orokorra txotxongilo-saioa prestatzea izango da. Hala ere, eta jarduera nagusia ondo prestatzeko, hausnarketako jarduera batzuk sartuko ditugu.

Polifoniaren inguruan:

Narratzaileak narrazioaren laburpena egingo du, eta, orduan, pertsonaien hitzak esango ditu. Beraz, une egokia izan daiteke bereizteko zein diren narratzailearen hitzak eta haien bitartez azaltzen diren pertsonaiak.

Narratzailea: Egun batean, baloiarekin jolasten zebiltzala... Ta-ra-ra-raaaaa... sorgin bati kolpea eman zioten... eta sorginak aaaaa!! Ume demonioak! Orain ikusiko duzue eta sorgin gaiztoak sorginkeria egin zuen... Iki-mili-kili-kliiik! Eta bi anaiak beltxarga bihurtu zituen.

Intonazioa: Testua grabatu, eta orduan da intonazioaz hausnartzeko une egokia. Egin probak, eta jabearazi intonazioaren garrantziaz.

TXOTXONGILO-SAIORAKO GIDOIA:

(Oharra, izenondoak eta aditzondoak landuko dira intonazioa eta antzezpena zehazterakoan. Izan ere, akotazioak hurrekin jar daitezke).

Narratzailea: Behin batean, baziren hiru neba-arreba: neska bat... eta bi mutil.

Narratzailea: Egun batean, mutilak baloiarekin jolasten zebiltzala, sorgin bati kolpea eman zioten, eta sorginak mehatxatu egin zituen: Ume demonioak! Orain ikusiko duzue!

Orduan, sorgin gaiztoak sorginkeria egin zuen... Iki-mili-kili-kliiik!

NARRATZAILEA: ... eta bi anaiak beltxarga bihurtu zituen.

HORIA/BELTZA: Zer gertatu da? Zer da hau?

SORGINA: (OFF) (Barre) Zoazte munduan zehar. Hegaz egizue. Ospa hemendik!

NARRATZAILE: Beltxargak, hegan, uda zen eremuetara abiatu ziren.

NARRATZAILEA: Sorgin gaiztoa, ostera, ez zebilen handik urruti.

SORGINA: La-lara-la-la-lara-la, Aiba! Neskatoa eta amona elkarrekin! Kar-kar-kar... Orain ikusiko dute horiek! Neuk erakutsiko diet! Kar-kar-kar...

NARRATZAILEA: Sorginak Elisa sorgindu nahi zuen: trakets, motel eta gaizto bihurtu behar zuen Elisa.

SORGINA: Kar-kar-kar... Kar-kar-kar...

SORGINA: Hiru bola jaurti zituen Elisa sorgintzeko.

SORGINA: Zoaz haren bihotzera eta gaiztotu...

SORGINA: Kar-kar-kar... Zoaz haren burura eta moteldu...

SORGINA: Zoaz haren eskuetara eta trakestu! Kar-kar-kar...

ELISA: Ji, ji, ji...

SORGINA: (OFF) Kar-kar-kar...

NARRATZAILEA: Hiru bola haiek Elisarenganantz abiatu ziren. Baina neskaren gorputza ukitu eta berehala desegin ziren, eta lore bilakatu ziren.

NARRATZAILEA: Elisa ezkutaketan jolasean ari zenean, hantxe agertu nintzen ni, eta laguntza eskaini nion.

ELISA: Hara!

NARRATZAILEA: Kaixo, Elisa!

ELISA: Nola dakizu nire izena?

NARRATZAILEA: Erraza, zure lagunei entzun diet!

NARRATZAILEA: Lagundu egin nahi dizut.

ELISA: Zertan?

NARRATZAILEA: Zure nebak aurkitzen.

ELISA: Zuk badakizu non diren?

NARRATZAILEA: Jakingo ez dut ba!

ELISA: Esan ba! Non dira?

NARRATZAILEA: Oso urrun. Nahi baduzu, eramango zaitut.

ELISA: Benetan?

NARRATZAILEA: Aja! Noski!

NARRATZAILEA: Eta halaxe alde egin genuen, arrapaladan... inori agur ere esan gabe... Ji, ji...

NARRATZAILEA: Baso eta ibaiak zeharkatu genituen... mendi eta itsasoak... Elisaren nebak aurkitu arte.

ELISA: Ekaitz, Gaizka! Hemen nauzue, Elisa naiz! Ekaitz, Gaizka! Hemen nauzue, Elisa naiz!

BELTZA/HORIA: Elisaaa! Zer moduz? Zer ondo! Hau zoriona! (Etab.)

NARRATZAILEA: Di-da batean itzuli ginen etxera. Hantxe zeukaten zain amona Garazi. Hura zen poza eta zirrara!

NARRATZAILEA: Bueno..., ni banoa. Agur!

ELISA: Baina ezin zara joan!

NARRATZAILEA: E? Zergatik?

ELISA: Nire nebak sorginduta daudelako. Ezin duzu sorginkeria bertan behera utzi?

NARRATZAILEA: Neba bakoitzari alkandora berri bat egin behar diozu. Baina sorginak ez ditu ikusi behar. Jantzi eta berehala, lehengora itzuliko dira.

ELISA: A! Zerez egingo ditut?

NARRATZAILEA: Lihoz. / Ji, ji, ji...

NARRATZAILEA: Bien bitartean, aintzira aldean...

SORGINA: Brrr! Alde egin dute! Nola demontre aurkitu ditu mukizu horrek?

NARRATZAILEA: Erratzaren gainera igo eta, ziztu bizian, amonaren baserrirantz abiatu zen sorgina.

SORGINA: Oraingoan, hirurak harrapatuko ditut. Elisa, ez zara libratuko, ez horixe! Kar-kar-kar...

ELISA: Gaizka, begira ezazu leihotik ea sorgina badatorren!

HORIA: Bai! Badator!

ELISA: Ondo da!

SORGINA: Zureak egin du, Elisa, ezingo duzu sorginkeria bertan behera utzi! Kar-kar-kar...

ELISA: Alkandorak lehenbailehen amaitu behar ditut.

SORGINA: Kar-kar-kar... (OFF)

HORIA: Sorgina etorri da!

SORGINA: Kar-kar-kar... Alferrik ari zarete, ez daukazue zer eginik! Ezin diozue nire sorginkeriari ihes egin! Kar-kar-kar...

ELISA: Mahuka bat falta den arren, josi egingo ditut. Lagundu!

ELISA: Hor dugu! Ene! Jantzi, jantzi itzazue!

SORGINA: Ejem... ejem... Iki-mili-kili-kliiiiik! Desagertu egingo naiiz! (OFF-era)

ELISA: Azkar, azkar, hor dago eta! Jantzi, jantzi itzazue!

NARRATZAILEA: Ordurako, Ekaitzek eta Gaizkak alkandora jantzia zuten eta lehengora itzuliak ziren, baina... Ekaitzi beso bat ez zitzaion eraldatu. Bere alkandorari mahuka bat falta zitzaionez, hegoa ez zitzaion beso bihurtu.

SORGINA: Birrindu egingo zaituztet! Brr! Jakin al daiteke nork esan dizun zer egin behar zen sorginkeria bertan behera uzteko? Uuuuuuu!! Uuuuuuu!!

NARRATZAILEA: Ji, ji, ji... Artxila, mortxila! Ji, ji, ji...

SORGINA: Ai, ai, ai, ai! Zer demontre gertatzen da?

NARRATZAILEA: Ji, ji, ji... Nik ere sorginkeriak egiten badakidala. (Barre)

NARRATZAILEA: Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Gasteizeko plazan. Agur! (Barre) (Musuak) (Barre).

JOLASTEKO TESTUAK:

· Ikasi ezkutaketan jolasteko leloa:

Kentzen denak: Kukubilko xaldariko, txoriak umeak eginiko non, non? Haritzaren kaldurruan trin tron. Bazarete?

Ezkutatu denak: Kiriik!

Jolasean, ondo erabili aditz-paradigma hau:

Nor-Nork orainaldi burutua.

· Sorginkeriak egiteko leloa: "Iki-mili-kili-kliik"

Desio onak azaltzen (Nori eta subjuntiboa) : Sorginkeria onak egiten jolastea proposatuko diegu; hartara, haur batek baloia jaurtikiko dio beste bati eta gauza on bat opako dio. Balloia hartu duenak gauza bera egingo du, beste haur bati jaurtiz.

2.4.- GIDOIA EDO BLOKEKAKO LABURPENA, DENBORA ZEHAZTUZ.

Kapitulu guztiak erlazionaturik daude, denen artean abentura bat osatzen dutelako.

Kapitulu baten egitura:

- Karatula: minutu bat.
- Narratzailea: 2/4 minutu.
- Kondaira: 16/20 minutu.
- Kredituak: minutu bat.

Gidoi literarioa:

BELTXARGAK

GALTZAGORRI: Behin batean, baziren hiru neba-arreba: neska bat... eta bi mutil.// Oso zoriontsu bizi ziren eta ikasle onak ziren.

ELISA: (Orroak) (Barre)

BELTZA: Iee, iieeee, iieeee!!

HORIA: (Barre)

BELTZA: Eta orain nik zera diot: "Kaixo, ahatea naiz." Eta zu, nor zara?

HORIA\ELISA: (Barre)

GALTZAGORRI: Beren amonak, Garazik, asko maite zituen bilobak.

AMONA: Ea ba... hona gailleta batzuk askaritarako.

HORIA\BELTZA\ELISA: Aupa!! / Gora amona!

MONA: Badakizue... astiro jan... kontrako eztarritik ez sartzeko...

ELISA: Esne-gain harrotuz egin dituzu?

AMONA: Horixe, esne-gainaz... zuri gustatzen zaizun bezala...

ELISA: Huuuhm! Zer gozoak!

AMONA: Jakina ba!

HORIA: Bota baloia!

BELTZA: Hor doa!

HORIA: Eup! Hartu ... (eta abar...)

GALTZAGORRI: Egun batean baloiarekin jolasten zebiltzala... ///

SORGINA: (Barre) Ta-ra-ra-raaaaa... (Barre)

HORIA: Bota, bota!

Beltza: Eup!!

GALTZAGORRI: ... sorgin bati kolpe eman zioten...

SORGINA: Aaaaa!! // Ume demonioak! Orain ikusiko duzue!

AMONA\ELISA: Kanta

GALTZAGORRI: Ez amonak, ez Elisak, ez zuten ezertxo ere jakin...

HORIA\BELTZA:

GALTZAGORRI: ... baina sorgin gaiztoak sorginkeria egin zuen...

SORGINA: Iki-mili-kili-kliiik!

GALTZAGORRI: ... eta bi anaiak beltxarga bihurtu zituen.

HORIA\BELTZA: Zer gertatu da? Zer da hau?

SORGINA: (OFF) (Barre) Zoazte munduan zehar. Hegaz egizue. Ospa hemendik!

GALTZAGORRI: Elisa ez zegoen sorginduta, baina...

ELISA: (Negar) Aguur! Laster itzuli...

GALTZAGORRI: Haurrek, beltxarga bihurturik, hegan egin zuten. // Beren herrian negua zenez, uda zen eremuetara abiatu ziren. Bitartean euren arrebak, Elisak, baserriko lanetan laguntzen zuen...

ELISA: Non utziko dut hau, amona?

ELISA\AMONA: (Musu)

AMONA: Gero arte, Elisa. / Agur

ELISA: Agur, amona.

GALTZAGORRI: ... eta eskolara joaten zen, baina uneoro gogoan izaten zituen. Sasi eta zuhaitzetako hostoak biltzen zituen, eta begien lekuan loreak jarritz bere neben aurpegiak irudikatzen zituen. Eguzkiaren izpiek masailetan jotzen zutenean, neben musuak hartzen zituela uste izaten zuen.

GALTZAGORRI: Neska hain zen ona, zer lagun asko zituen. Baina igandeetan nahiago izaten zuen Garazi amonari baserrian laguntzea, eta behin betebeharrak egindakoan, harekin etxe aurrean esertzea atsedean hartu eta solastatzen.

AMONA: Elisa, maitea, badakizu zeinen txintxoa zaren? E? Zeinen ona? Urrezko bihotza duzu.

ELISA: Zu hobea zara.

AMONA: (Barre) Tira, tira, ni ona naiz, bai, baina zu are eta hobea. Bestela loreei galdetuko diegu (Barre). Ea loreok, zein da herrialde honetako neskarik zintzoena?

AMONA: Entzun, entzun!

LOREA A\LOREA B: Elisa! Elisa!

ELISA: Ene! Nii?

AMONA: Bai.

ELISA: Tranpa egin duzu, amona. Neskari zintzoena galdetu duzu eta zu ez zara neska, atsoa baizik.

AMONA: A, bai? Tranpa egin dudala diozu? Tranpati deitu didazu? (Barre)

ELISA: Baai! (Barre) Baai! (Barre)

GALTZAGORRI: Sorgin gaiztoa, oster, ez zebilen handik urruti.

SORGINA: La-lara-la-la-lara-la Aiba! Neskatoa eta amona elkarrekin! Kar, kar, kar...

Orain ikusiko dute horiek! Neuk erakutsiko diet! Kar, kar, kar...

ELISA: (maitekiro) Bai, amona, tranpatia, tranpatia zara. (Barre)

AMONA: (Haserretuarena eginez) Ez nazazu gero tranpati esan! Kontuz ibili nirekin, e!

GALTZAGORRI: Sorginak ez zekien zer gaiztakeria egin Elisa sorgintzeko.

AMONA: Non zaude? / Elisa!

GALTZAGORRI: Baina berehala asmatu zuen: trakets, motel eta gaizto bihurtu behar zuen Elisa.

SORGINA: Kar, kar, kar... Kar, kar, kar...

AMONA: Alferrik ezkutatu zara, aurkitu egingo zaitut!

ELISA: Ji, ji, ji...

SORGINA: Zoaz bere bihotzera eta gaiztotu ...

AMONA: Elisa! Elisaaaa!

SORGINA: Kar, kar, kar... Zoaz bere burura eta moteldu ...

AMONA: Kiriketan, karaketan, ganbelapeko altxatzen ez denak berak beteko!

SORGINA: Zoaz bere eskuetara eta trakestu Kar, kar, kar...

ELISA: Ji, ji, ji...

GORGINA: (OFF) Kar, kar, kar...

GALTZAGORRI: Hiru bola haiek Elisarenganantz abiatu ziren. Baina neskaren gorputza ukitu eta berehala desegin ziren, eta lore bilakatu ziren.

SORGINA: Hau amorrua! Mukizua halakoa! Iki-mili-kili-kliiik! Desagertu egingo naitz!
(OFF-era)

AMONA: Lasai, Elisa, lasaitu... (Planoa bukatu arte)

ELISA: (Negar) (Planoa bukatu arte)

GALTZAGORRI: Garazik dena ikusi zuen. Eta sorginak alde egin zuenean neskarengana hurbildu eta besoetan hartu zuen.

ELISA: (Negar)

AMONA: (Musu) Zer esan dizut? Zein da zintzoena! Hain zara zintzoa, sorginak ere ezin baitu ezer egin zure aurka.

AMONA: Ez, maitea, dena konponduko da, lasai.

ELISA: (negar zotinka) Ez da egia, nire nebak betirako desagertuak dira. Agian sorgin gaizto horrek desagerrarazi zituen!

GALTZAGORRI: Elisaren malkoak lurrera erori ziren, eta putzu txiki bat sortu zuten. Putzuan irudiak ikusten ziren. Eta irudietan, beltxargak. Eta pozik zeuden!

HORIA\BELTZA: (Kanta)

AMONA: Bizirik daude, pozik egon zaitezke.

ELISA: Bai, baina non? Zergatik ez dira hona etortzen?

AMONA: Baliteke sorginkeria dela-eta, hona etortzerik ez izatea. Edo, agian honantz datoz!

ELISA: A! Bada, bai... agian zuzen zaude... Bai... Edo beharbada ez dakite nola etorri.

AMONA: Goazen bazkaltzera, ziur nago dena konponduko dela!

GALTZAGORRI: Bazkaldu eta gero, Elisa lagunekin jolastera joan zen.

NESKATO: Kukubilko xaldariko, txoriak umeak eginiko non, non? Haritzaren kaldurruan trin tron. Bazarete?

ELISA: Kirik! (OFF) Ji, ji, ji...

MUTIKO: Kiriiik!

NESKATO: Non arraio sartu dira? / Ea hemendik... / Ez, ez, ez...

NESKATO: A! Kar, kar, kar... Hor dago... Aritz, ikusi zaitut!

MUTIKO: (OFF) Ez nauzu ikusi!

NESKATO: Baietz, orgaren atzean zaude, burua ikusi dizut. Kar, kar, kar...

MUTIKO: Jooo!

GALTZAGORRI: Bere ezkutalekuan zegoela, Elisak zarata txiki bat entzun zuen. Begiratu eta hostopean zerbait mugitzen ari zela sumatu zuen... Eta hantxe agertu nintzen ni: Galtzagorri.

ELISA: Hara!

GALTZAGORRI: Kaixo, Elisa!

MUTIKO: Tranpatia zara.

NESKATO: Aurkitu zaituuuut...!

ELISA: Nola dakizu nire izena?

GALTZAGORRI: Erraza, zure lagunei entzun diet!

GALTZAGORRI: (lagunen ahotsa imitatuz eta ozenki) Elisa, zatoz gurekin jolastera!

NESKATO: Irabazi duut, irabazi duuut!

MUTIKO: Zaude ixilik!

ELISA: (Galtzagorri-ri) Isilik egon zaitez, bada, edo zure erruagatik aurkituko naute!

GALTZAGORRI: Ui! Barkatu!

MUTIKONESKATO: Elisa, Elisa... Non zaudeee?

ELISA: Eta zer nahi duzu?

GALTZAGORRI: Lagundu egin nahi dizut.

ELISA: Zertan?

GALTZAGORRI: Zure nebak aurkitzen.

ELISA: Zuk badakizu non dauden?

GALTZAGORRI: Jakingo ez dut bada!

MUTIKO: Non egongo ote da?

ELISA: Esan bada, non daude?

GALTZAGORRI: Oso urrun. Nahi baduzu, eramango zaitut.

ELISA: Benetan?

GALTZAGORRI: Aja! Noski! Goazen! (OFF) Goazen... ji, ji, ji...

NESKATO: Elisa... Elisa...

GALTZAGORRI: Elisaren lagunek hura bilatzen jarraitu zuten. Eta bitartean ni gero eta bizkorrago nindoan... ji, ji...

ELISA: E! Ez hain azkar! Galtzagorri, arinegi zoaz!

GALTZAGORRI: (OFF) Ji, ji... (ON) Nahi ez baduzu, ez etorri! Agur!

ELISA: / Ez, itxaron!

GALTZAGORRI: Eta halaxe alde egin genuen, arrapaladan... inori agur ere esan gabe... Ji, ji...

NESKATO: Elisa... Elisa! Non zaude? Hemen zegoela uste nuen, bada! / Elisa... Elisa, irten zaitez. Elisa, honek ez du batere graziarik. ... Kezkatuta gaude!

MUTIKO: Elisa...

GALTZAGORRI: Kar, kar, kar...

GALTZAGORRI: Baina Elisa eta biok handik oso urruti geunden. Baso eta ibaiak zeharkatu genituen... mendi eta itsasoak ... Eta bitartean...

BELTZA: Elisaren falta dut.

HORIA: Nik ere bai.

BELTZA: Gogoratzen nola ibiltzen ginen hirurok arratsaldero jolasten?

GALTZAGORRI: ... Eta azkenean...

ELISA: Ekaitz, Gaizka! Hemen nauzue, Elisa naiz! Ekaitz, Gaizka! Hemen nauzue, Elisa naiz!

GALTZAGORRI: (Barre)

BELTZA\HORIA: Elisaaa! Zer moduz? Zer ondo? Hau zoriona! (Etab.)

GALTZAGORRI: Uuumh... Barkatu, baina... Ejem... Elisa... Etxera itzuli behar duzu gaua heldu baino lehen, bestela Garazi kezkatu egingo da.

ELISA: Itzuliko naiz. Baina beltxargekin!

HORIA\BELTZA: Bai, bai...

HORIA\BELTZA\ELISA: (Barre)

GALTZAGORRI: (Hasperena)

HORIA\BELTZA\ELISA: (Barre, musuak etab.)

ELISA: Ai, hau da poza! ... hau da poza...!

GALTZAGORRI: Elisa, sorginak beltxarga bihurtutako haren neba biak eta laurok di-da batean itzuli ginen etxera. Hantxe zeukaten zain amona Garazi. Hura zen poza eta zirrara! Baina bazen oraindik... konpondu gabeko arazotxo bat...

GALTZAGORRI: Bueno..., ni banoa. Agur!

ELISA: Baina ezin zara joan!

GALTZAGORRI: E? Zergatik?

ELISA: Nire nebak sorginduta daude oraindik ere. Ezin duzu sorginkeria bertan behera utzi?

GALTZAGORRI: Nik?

ELISA: Nork bestela?

GALTZAGORRI: Zuk zeuk!

ELISA: Nik ez dakit sorginkeria egiten!

GALTZAGORRI: (ON - OFF) Ez duzu sorginkeriarik egin behar.

ELISA: (OFF) Bada ez dut ulertzen!

BELTZA: Ez dago zereginik!

GALTZAGORRI: Neba bakoitzari alkandora berri bat egin behar diozu. Baina sorginak ez ditu ikusi behar. Jantzi eta berehala lehengora itzuliko dira.

ELISA: A! Zerez egingo ditut?

GALTZAGORRI: Lihoz. / Ji, ji, ji...

ELISA: Aaaa!

HORIA: Erraza dirudi... Uf!

BELTZA: Uf! Asmatuko ahal du!

GALTZAGORRI: Bien bitartean, aintzira aldean...

SORGINA: Brrr! Alde egin dute! Nola demontre aurkitu ditu mukizu horrek? Oso azkarra zara, e? Baina oraindik ez didazu irabazi! /// Kar, kar, kar...

GALTZAGORRI: Erratzaren gainera igo eta ziztu bizian amonaren baserrirantz abiatu zen

sorgina. Han lanean gogotik ari ziren denak neuk gomendatu nizkien alkandorak egiten.

SORGINA: Oraingoan hirurak harrapatuko ditut. Elisa, ez zara libratuko, ez horixe!
Kar, kar, kar...

ELISA: Gaizka, begira ezazu leihotik ea sorgina datorren.

HORIA: Bai! Badator!

ELISA: Ondo da!

SORGINA: Zureak egin du Elisa, ezin izango duzu sorginkeria bertan behera utzi!
Kar, kar, kar...

ELISA: Alkandorak amaitu behar ditut lehenbailehen.

SORGINA: Kar, kar, kar... (OFF)

HORIA: Sorgina etorri da!

ELISA: Ene! Hemen da! Trumoia hasi da! Eta oraindik ez ditut bukatu.

SORGINA: Kar, kar, kar... Alferrrik ari zarete, ez daukazue zer eginik! ...
Ezin diozue nire sorginkeriarri ihes egin! Kar, kar, kar...

ELISA: Mahuka bat falta den arren, josi egingo ditut. Lagundu!

BELTZA: Bai, bai, azkar!

ELISA: Hor dugu! Ene! Jantzi, jantzi itzazue!

SORGINA: Ejem... ejem... Iki-mili-kili-kliiiiik! Desagertu egingo naitz! (OFF-era)

ELISA: Azkar, azkar, hor dago eta! Jantzi, jantzi itzazue!

ELISA\HORIA\BELTZA: (Barre) Ederretik libratu gara! Ospa, fuera hemendik! (Etab.)

SORGINA: Iki-milikili-kliiiiik! Kar, kar, kar...

GALTZAGORRI: Ordurako Ekaitzek eta Gaizkak alkandora jantzia zuten eta lehengora itzuliak ziren, baina... Ekaitzi beso bat ez zitzaion eraldatu. Bere alkandorari mahuka bat falta zitzaionez, hegoa ez zitzaion beso bihurtu.

SORGINA: Birrintu egingo zaituztet! Brr! Jakin al daiteke nork esan dizun zer egin behar zen sorginkeria bertan behera uzteko? Uuuuuuu!! Uuuuuuu!!

GALTZAGORRI: Ji, ji, ji... Artxila, mortxila! Ji, ji, ji...

SORGINA: Ai, ai, ai, ai! Zer demontre gertatzen da?

GALTZAGORRI: Ji, ji, ji... Nik ere sorginkeriak egiten badakidala. (Barre)

SORGINA: Ez nazazu jo, nahikoa da! Ez nazazu jo! /

AMONA: (Barre)

GALTZAGORRI: Nik ez zaitut jotzen, zeure makilak jotzen zaitu. (Barre)

SORGINA: Mesedez, ez nazazu jo... nahi duzuna egingo duuuut!

GALTZAGORRI: Ez dizut joko. Baina baldintza batekin.

SORGINA: Aaaii, aaiii! Zein baldintza?

GALTZAGORRI: Haurrei ez diezula sorginkeriarik egingo agindu behar didazu.

AMONA: (Barre)

SORGINA: Aaaaaii, aaaaaii!! Agintzen dizut.

AMONA: (Barre)

GALTZAGORRI: Artxila, mortxila, flux!!

SORGINA: Aaaaarrgh!! Damutuko zaizue! Iki-mili-kili-kliiiiik! Desagertu egingo naitz!
(OFF-era)

ELISA\HORIA\BELTZA: Alde hemendik eta ez etorri inoiz.

AMONA: (Abestuz) Joan egin da, joan egin da!

ELISA\HORIA\BELTZA: (Abestuz) Joan egin da, joan egin da!

GALTZAGORRI: (Kamerari begira.) Eta honela amaitu zen dena. Beltxargaren hegoa izatea ez zen oztopo izan Ekaitzentzat, hego harexekin ipuin zoragarriak idatzi baitzituen. Eta nik irakurriak ditudanez, beste batean kontatuko dizkizuet. Ejem... ejemmm... Tira, hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Gasteizeko plazan. Agur! (Barre) (Musuak) (Barre).

BIBLIOGRAFIA.

- AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.
- Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.
- DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia
- BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia
- BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.
- CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona
- GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.
- AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.
- El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.
- PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.
- GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya
- TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya
- BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN
EUSKARAKO ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

SOINU BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:

Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:

Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M^a Rodríguez

K 2 0 0 0 S . A .

Produktore exekutiboa:

Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:

Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:

Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:

Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-12-16**

LEGE GORDAILUA: : SS-1586/03

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**